



# Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

## Euskal kantagintzaren ondarea Interneten

2018-04-27 Villabona, Subijana Etxea



### Sarrera

Xenpelar Dokumentazio Jardunaldietan tradiziozko kantagintzaren ondareak Interneten izan dezakeen lekuaz gogoetatu da.

Kantatzen duen herria da Euskal Herria, eta bere ondarea zabala eta aberatsa da. Egun, kantu ondarearen inguruan bi datu-base daude Interneten: [Badok](#), egungo kantagintzaren diskografiari buruzkoa, eta [Euskal Kantutegia](#), tradiziozko kantu-liburuen bilduma. Gogoeta saio honekin Euskal Herri osoko hainbat erakundek bildutako tradiziozko kantu ondarea Interneten batera izatea nolakoa litzatekeen irudikatu nahi izan da, irudi orokor bat osatu asmoz. Eta galdera baten inguruan antolatu dira: **Irudikatu dezakegu denentzat baliagarria izateko moduko kantutegi bateratu bat? Nolakoa litzateke?**

### Hitzaldiak

Taldean egindako gogoeta laguntzeko helburuarekin, gaiaren inguruko ertz ezberdinak ekarri dira sei hitzaldi laburren bidez. Bakoitzak bere erakundetik edo ikuspuntutik eman ditu azalpenak:

- **Amaia Cuende** - Eusko Ikaskuntza [[aurkezpena](#)]
- **Jon Bagues** – Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa [[aurkezpena](#)]
- **Igone Etxebarria** – Labayru Fundazioa [[aurkezpena](#)]
- **Itziar Irigoien** – Irakaslea eta haur abesbatza zuzendaria [[aurkezpena](#)]
- **Pantxix Bidart** – Kantaria eta irratsaio egilea
- **Maidar Bedaxagar** – Kantaria eta liburuzaina [[aurkezpena](#)]

## **Taldearen lan-saioan agertutako ideia nagusiak:**

Balizko tresna ideal baten ezaugarri eta edukiak landu ziren, bai talde txikietan eta baita ere denen artean irekitako iritzi-truke tartean. Gogoetan zehar agertutako ideia nagusiak hauek dira:

### **1. Euskal kantagintzaren transmisioa helburu izan behar da, lehentasunez:**

Euskal kantagintzaren transmisioan etena eman da eta ematen ari da Euskal Herri osoan zehar. Hizkuntzaren egoerak eta baita egungo gizartearen ezaugarriek (hizkuntza nagusietan – ingelesez, frantsesez (iparraldean) eta gaztelaniaz (hegoaldean) – sortutako musika/kantek) eragina dute eten horretan.

Egoera hori kontutan hartu behar da eta euskal kantagintzaren transmisioa indartu behar da alor ezberdinetatik. Dokumentazio egitasmo honek ere errealitate hau lehentasunez kontutan izan beharko luke bere eraketan eta diseinuan. Dokumentazioa transmisioaren beharretara jarri behar da momentu honetan, bestela, bilketa hutsean geldituko da, sorkuntza bizi baten eragile izan beharrean.

Irakasleen formazioa ere bultzatu behar da, kantuen transmisioa hezkuntzan ere lantzeko.

### **2. Dokumentazio tresna koordinatua eta sinplea izan behar da:**

Kantuarekin zerikusia duten egitasmo/webgune guztietara sarbidea eskainiko duen ataria izan behar da, egitasmo bakoitzaren berezitasunak eta ezberdintasunak kontutan hartuko dituen, haiek baliatu, alferrikako bateratze lanik egin gabe. Katalogazio teknika sakonetan galdu gabe, sinpletasunetik abiatuta egin behar da lana. Sinpletasun hori lortzeko ahalegina egin behar da.

### **3. Corpus zabala jaso beharko luke, behar denean filtratzeko aukerarekin:**

**3.1. Doinu mailan:** Euskal doinuak ezin dira banatu kantutegitik. Hitzik gabeak ere kanturako balio dezakete. Denak elkarrekin kontsultatzeko aukera izan behar da, kantuari lotuta daudenak filtratzeko aukerarekin.

#### **3.2. Kantu mailan:**

- **Ahozko transmioko kantuak lehentasunezkoak dira:** Euskal kantutegiaren ardatza izan behar dira, eta horren transmisioa eta ezagutza zabaltzea helburu jarri.
- **Bestelako euskal kantuak ere behar dira:** Denak batera eskainiz gero, kantu zaharrak eta berriak, gazteak erakartzeko balio dezakete, haien bidez, ahozko transmioko kantuetara heltzeko. Transmioko helburuari laguntzeko baliatu daitezke. Egile eskubideen gaia konpondu beharko da.

#### 4. Euskal kantutegia. Balizko tresnaren ezaugarriak eta edukia:

Edukiari eta ezaugarriei begira jarrita, zer nolako tresna izan beharko litzatekeen irudikatu zen talde txikietan. Bertan bildutako ideien eskema hau da (lehenetsun handiena jaso duten ideiak zenbaki hurrenkeran eta lodiz):

Doinuak	Kantuen hitzak	Erlazionatutako dokumentuak
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. <b>Doinuaren aldaerak (musika mailan; hitz berdinekin erabilitako doinu ezberdinak)</b></li> <li>2. <b>Partitura/pentagrama</b></li> <li>3. <b>Partitura formatu ezberdinetan:</b> finale/musescore; pdf; midi/mp3;..</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. <b>Kantuen ingurua, testuingurua (zein egoeratan kantatzen den)</b></li> <li>2. <b>Kantuaren aldaerak (hitzen arteko ezberdintasunak)</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jatorrizko hitzak eta egokitutako hitzak (idazkera normalizatua)</li> <li>• Deskribapenak: iturria (kantutegia), biltzaileak, garaia, bilketa lekua, historia, gaiak,...</li> <li>• Itzulpenak (fr, es)</li> </ul> </li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. <b>Jatorrizko grabazioak (bideo/audioa)</b> <ol style="list-style-type: none"> <li>a. Kantu/Doinuarenak</li> <li>b. Azalpenak, elkarrizketak,..</li> </ol> </li> <li>2. <b>Haurrentzako edukiak:</b> edozein adinentzako joko/tresnak, eduki pedagogikoa,..</li> <li>3. <b>Ikerketak eta azterketak, jatorrizko kantutegiaren originala</b> (testu osoa, ahal denean) <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kantu didaktizatuen multzo bat (50 bat, azalpen sakonagoarekin,..)</li> <li>• Biografiak</li> <li>• Karaokeak</li> <li>• Eskuizkribua (kantariarena)</li> <li>• Prentsa</li> <li>• Funtsak: Irratietako artxibategiak (kantu zaharren grabazioak)</li> </ul> </li> </ol>
<b>Ezaugarri nagusiak</b>		
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. <b>Elkarlanean eraikitakoa: kokagune/gune ezberdinetako edukiak lotzea</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Beste webguneetako edukiak bateratzeko, elkarren arteko loturak egiteko</li> <li>• Bilaketak modu zentralizatuan egin, eta emaitzen bidez, beste webguneetara bideratzeko</li> </ul> </li> <li>2. <b>Kantu baten inguruko elementu guztiak elkarlotuta eskaintzea: aldaerak, doinuak, grabazioak, ikerketak, biografiak,..</b></li> <li>3. <b>Interaktiboa izatea</b>, erabiltzaileek parte hartu ahal izatea <ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazioa gehitzeko</li> <li>• Norbere multzo/sailkapenak egin ahal izateko</li> <li>• Abestiak partekatzeke</li> <li>• Lekukotasunak emateko (kantu baten sortutako sentipenak, oroitzapenak...)</li> <li>• Bloga</li> <li>• Agenda, kantuen ingurukoa</li> <li>• Kantari batek bertsio berri bat egin nahi badu, finantzatzeko modua (crowdfunding)</li> </ul> </li> </ol>		

#### 4. Nabigazio aukerak zabaltzea:

- Mapa moduan ikusteko aukera: lekuaren eta garaiaren arabera
- Kantuak multzokatzeko aukera:
  - Gaika
  - Prozedura estilistikoaren arabera
- Kantuen loturen artean nabigazioa eskaintzea
- Eguneratuta mantenduko den tresna izatea (kantu berriak, aldaera berriak,... datuak gehitzeko aukera)
- Doinuak erreperatatzeko aukera eskaintzea: doinuak musikalki bilatzeko aukera (incipit musikala)
- Bilatzaile indartsua izatea (bilaketa eremua, google antzera)
- Destakatuak eta loturak eskaintzea (wikipedia antzera)
- Nazioarteko sailkapenekin lotura izatea
- Gaur eguneko teknologia baliatzea: ez dadila bakarrik paperetik digitalera ekarritako informazioa.
  - [Shazam](#) aplikazioarekin lotzea
  - Gailu guztientzat konpatiblea izatea
- Gazteentzat desiragarria izango den tresna izatea.

## Antolatzaileak

2018ko Xenpelar Dokumentazio Jardunaldien antolatzaileak Mintzola Ahozko Lantegia, Eresbil, Labayru eta Eusko Ikaskuntza dira.

Badok, Mikel Laboa Katedra eta Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkartea (ALDEE) laguntzaile izan dira.

### *Antolatzaileak:*



### *Laguntzaileak:*



Mikel Laboa  
Katedra

